



MADDI AMIANO EUSKADIKO TXAPELDUNA

Judon, 44 kilo azpiko kadete mailan irabazi zuen asteburuan altzotarrak; Espainiako Txapelketarako sailkatuko da 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-03-17

VIIURTEA 1.655.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Gipuzkoarrek Alderdi Popularreko parodia egin zuten, Verso escuela sortu zutelarik. HITZA

'HONTZAK' GARAILE LEHEN KANPORAKETAN

AIZTONDO Beterriko Bertsolaritza Txapelketan nafarrek baino puntu gehiago lortu zituzten gipuzkoarrek; hurrengo saioa, ostiralean 2



Urdax Magunazelaia 106 kiloko altxa zuen, lehenengo saikeran. TXOLARRE

«Oso gustura» herri kirol jaialdiak eman zuenarekin

ASTEASU Txolarre irratiak antolatu zuen herenegun eta 300 lagun inguru bildu ziren 4

Gizonezko bat hil da autoarekin kamioi bat jo ondoren



TOLOSA Olarrain auzoan izan zen istripua atzo arratsaldean; 72 urteko donostiarra da hildakoa 6 GI-2634 errepidean izan zen istripua, Alegia aldera, zubiaren gainean. HITZA

Zazpi-Itturri pilota eskola ere VI. Berriako finalerdietara sailkatu da

AMEZKETA Irurtzunen aurka ariko da; Aurrera-Saiazek etzi jokatu du Beotibarren 6



TXOKOA hitza

HITZAK harpidunentzat
2 sarrera pare ditu
AKABA BERA BERA
BM Parc Sagunt
Bihar, asteazkena • 19:00etan
Donostiako Bidebieta Kirolegian

HITZAK harpidunentzat
2 sarrera ditu
BRUESA GBC
Kalise Gran Canaria
Igandea • Martxoak 22
12:30ean • Donostiako Illunben



sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu: 943-65 56 95 harpidun kodea eskura duzula

'Hontzak' izan dira garaile Beterriko Txapelketako lehen kanporaketan

Bertsolaritza »

Gipuzkoarrak gailendu zitzaizkien nafarrei; hurrengo saioa ostiralean izango da Zizurkilen.

ESTI EZEIZA

Nafarroako jota abeslariak eta Alderdi Popularreko hautagai gazteak eman diote hasiera Beterriko II. Bertsolari Txapelketari. Joan den ostiralean jokatu zen lehendabiziko kanporaketa Amasako Iturri-goxo jatetxean. Bertan, Gipuzkoako *hontzak* eta Nafarroako *arranoak* izan ziren aurrez aurre.

Lehen kanporaketan gipuzkoarrak gailendu ziren, 36 botutatik 22 eramanaz. Honenbestez, beraiek sailkatu dira hilaren 28an Urnieta-ko Oianume jatetxean jokatuko den finalerako. Jokin Labaien, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde osatzen dute Gipuzkoako taldea. Beraien aurka aritu zirenak berriz, Julen Zelaieta, Erika Lagoma eta Jon Barberena izan ziren.

Entzuleak bereganatzen onenak, Gipuzkoakoak

Larramendi Bazkuna Kultur elkarteak antolatutako bertsolari txapelketa honen ezaugarriak dira, umorea eta bertsolariak gainditu beharreko ariketa bereziak. Sarrera indartsua egiteak bere garrantzia du, hasieratik erakarri behar baita entzulegoaren harreta. Azken batean, hauek dira epaile, eta publikoa poltsikoratzen duenak irabazten du finalerako txartela. Emaitzek adierazten duten bezala, ostiralekoak, etxekoak izan ziren trebeena horretan.

Etxetik prestatuta eramaten dute sarrera parte-hartzaileek, eta iazkoak, ahuntzak eta dena izan baziren tarteko, aurten ez dira gutxiago izan. Nafarrak, txuri eta gorri jantzita, jota abeslari gisa aurkeztu ziren. Hala, doinu hauek erabiliz abestu zituzten lehen bertsoak. Gipuzkoarrak berriz, Alderdi Pularreko hautagai gisa, garai berrietara egokitzeko premiez ohartuta, *Verso escuela* aurkeztu zuten. Hala, alderdiaren sintonia atzetik entzuten zela sartu ziren jangelara.

Lehendabiziko txapelketaren ildoak jarraituz, ofizioa, banaka, elkarri ezpainak irakurri, segidilla... aritu ziren bertsolariak. Manuel Larramendi, Larramendi Bazkunako kideak agertutakoaren arabera, gustura daude aurtengo lehen saio honekin. «Jaz baino jende gutxiago hurbildu bazen ere, etorri zirenek oso ongi pasa zuten». Aurtengorako egin dituzten aldaketan artean dago, epaile bakar eta entzulego dela. Hala, Unanueren ustetan, Zizurkilen bildu zirenak «sai ugari bertsoszaleak



Txuri eta txorri jantzita, jota abeslari gisa agertu ziren nafarrak: Julen Zelaieta, Erika Lagoma eta Jon Barberena. HITZA

ziren, eta ez bakarrekoak». Hau da, bertsolaritzaren mundua jarraitzen zutenak. Aipatzekoa da, bertan izan zirela, publiko eta epaile gisa, iazko zenbait parte-hartzaile ere.

Gipuzkoaren irabazi bazuten ere ongi aritu ziren sei bertsolariak. Taldelana kontuan hartuz gero, *hontzak* hobeto aritu ziren, baina banakakoetan, oso ongi moldatau ziren *arranoak* ere.



» BIZKAIKO 'AZERIAK'

Gorka Ostolaza

■ **Markina.** 28 urte ditu. Ingeniaria daikasketaz, eta irakasle moduan lan egiten du. 2006ko Plazatik Gaztetxera-ko txapelketa da.



» ARABAKO 'OTSOAK'

Iñaki Viñaspre

■ **Abetxoko.** 24 urte ditu. 2000. urtean hasi zen Bertso Eskolan. Azken bost urteetan Arabako Txapelketan finalean sartu da.

Ostiral honetan, bigarren kanporaketa

Bizkaiko *azerien* eta Arabako *otsoen* txanda izango da ostiral honetan, hau da, hilaren 20an. Bigarren kanporaketa hau Zizurkilgo Olen-tzo jatetxean izango da. Aurrekoan bezala, bertso afaria izango da, eta prezioa 25 eurokoa izango da. Txartelak aurrez erosi behar dira Larramendi Bazkunaren egoitzetan (Urnieta, Zizurkilen edo An-



Onintza Enbeita

■ **Muxika.** 27 urte ditu. Iaz Busturidoko txapelketa izan zen. Kazetaria da. Bizkaiko azken txapelketan finalera iritsi zen.



doainen). Baita, Zizurkilgo Olen-tzo jatetxean eta Andoainen, Er-naitza eta Stop liburu-dendetan; nahiz, Amasa-Villabonan, Ogi Goxo okindegian.

Zizurkilgo saioa irabazten duen taldea finalera pasako da, eta bertan, Gipuzkoakoa izango du aurkari. Sariei dagokionean, talde irabazleak txapela eta 300 euro jasoko ditu. Bigarren geratzen denak berriz, oroigarria.



Oihana Bartra

■ **Areeta.** 24 urte ditu. Euskal filologian lizentziatua da eta irakaslea. Iazko Bizkaiko bertsolari txapelketan finalaurrekoetara iritsi zen.



Andere Arriolabengoa

■ **Aramaio.** 26 urte ditu. 16 urterekin hasi zen Aramaio bertsoskolan. Iaz jokatu zuen bere lehendabiziko finala.

Laburrak

Kulturako diru laguntzak eskatzeko epea zabalik da

TOLOSA ● Kulturako ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru laguntzen arautegia onartu dute (www.tolosakoudala.net), eta aurtengo deialdiaren ezaugarriak hauek dira: Eskaerak egiteko lekua Udate da. Eskaerak egiteko epea ondorengo izango da, deialdiaren argitara eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 30 eguneko epea. Hau, astelehenetik ostiralera, goizez, 08:00etatik 14:00etara egin ahal izango da. Hala, deialdia martxoaren 12an argitaratu zenez GAO-n, epea apirilaren 12an amaituko da, 14:00etan.

Usabalgo rokodromoa inauguratuko dute bihar

TOLOSA ● Bihar Usabal kiroldegian eraiki berri duten rokodromoa inauguratuko dute. 18:15ean hasiko da ekitaldia, eta bertan lau emakume eskalatzalek erakustaldia eskainiko dute. Inaugurazioaren aurretik, 18:00tan, Edurne Pasaban mendigoizaleak, kiroldegiko sarreran ipini duten plaka agertuko du.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 2339

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Iera Agirre finaletik kanpo geratu da Diez-Okariz bikotearen aurka galduta

Pilota » Leitzarrak ez zuten ohiko joko ona erakutsi eta 30-24ko markagailuarekin amaitu zuten Emakumea Pilotari Irekiko finalerdia.

ERREDAKZIOA

Iera Agirre leitzarrak ezin izan zuten Emakumea Pilotari Irekiko finalera heldu, pasa den asteburuan Aristorena bikotearekin bera jokaturiko finalerdian 30-24 galduta ondoren, Diez-Okariz bikotearen aurka.

Joko ona erakutsi izan du Iera Agirrek azken partidetan, baina azken honetan ezin izan zuten etekinik atera. Lizarrako bikote aurkaria ez zen batere kontzentratua atera jokatzera eta partida erdialdera arte-edo lanak izan zituzten Agirrek garatzen zuten jokoari behar bezala erantzuteko.

Partida hasieran beraz, Agirrek bere jokoak egin zuten Aristorena une oro adi zuelarik atzeko koadroetan. Mirentxu Okariz eta

Asun Diez berriz, ez ziren kantxan ondo kokatzen batez ere Agirrek pilota hartzen zuenean, ez baitzuzten aurreko kuadroak behar bezala zaintzen. Eta partida erdialdera arte Agirrek eta Aristorenak partida desorekatzea lortu zuten.

Amaieran, Agirrek pazientzia galduta zuen

Hala ere, Lizarrako bikoteak 17nako berdinketa lortu zuen lan asko egin ondoren eta batez ere aurrakien jokoak ondo irakurri eta beharrezko kokapenak hartuz eta pixkanaka Ieraren jokoak ekiditen hasi ziren. Leitzarra pazientzia galtzen hasi zen, ez baitzuen bere jokoak nahi bezala garatzen eta azkenean tantoak luzatuz joan ziren eta Asun eta Mirentxuk lortu zuten finalerako sailkapena.

Agirre aurreko kuadroetan oso trebea da eta orain arteko partidetan ezin izan diote aurre egin, izan ere «bere fiakoa, mozketak eta horma bikoak ikaragarriak dira», indar gutxikoa baina oso ondo kokatuak eta ondorioz pilotak

frontisa jo eta behera egiten du, pilota asko lehenengo koadroan uzteko gai delarik.

Beste finalerdian, Redondo eta Errasti irabazle

Bigarren finalerdia Redondo eta Errasti bikoteak irabazi zuten Yanira Aristorena eta Continen aurka (30-16). Hasieratik Maite Redondok eta Dolo Errastik abantaila hartzea lortu zuten, baina beste bikotea 6-8ra gerturatu ziren. Une horretan bazirudien pilotari nafar gazteek gipuzkoarrei kontra gehiago egingo zietela, baina ez zen horrela izan eta partida erdialdetik aurrera, Redondok eta Errasti erraz egin zuten norgehiagoka, finalerako txartela lortuz.

Finala, martxoaren 21ean

Finala datorren larunbatean, martxoak 21, arratsaldeko 16:30etik aurrera izango da. Lehenengo hirugarren eta laugarren postuko partida jokatu dute eta ondoren finala.



Agirrek ez zuen beste partidetak maila ona erakutsi. HITZA

Bengoetxea-Beloki etxera bidali dituzte Olaizola-Mendizabalek

Leitza » Binakako Pilota Txapelketan 16-22 galduta zuten; irabazleak Martinez Irujo-Goñiren aurka ariko dira finalean.

ERREDAKZIOA

Binakako Pilota Txapelketaren finalaren atarian geratu zen herenegun Bengoetxea VI. leitzarra. Beloki bikote zuela ezin izan zion aurre egin iaz ere txapela jantzi zuten bikoteari, Olaizola II eta Mendizabalosatutako bikoteari, hain zuzen ere. Donostiako Atano pilotalekuan jokaturiko partidaren irabazleak pilotari leihakorrak direla utzi zuten agerian. Amaieran markagailua 16-22an geratu zen.

Harmailtara erreparatuz gero, batek baino gehiagok pentsa zezakeen finalean zegoela, giroa paregabea izan baitzen uneoro.

Partidaren nondik norakoak

Neurketaren amaieran, Bengoetxeak bere porrota onartu eta «partida parekatua izan da, bi huts egitengatik galduta dugu», aitortu zuen leitzarrak.

Partidak bi zati izan zituela esan daiteke; batetik, markagailua pare-

Bengoetxea VI.-Beloki 16

Olaizola II.-Mendizabal 22

- **Pilotalekua.** Atano (Donostia).
- **Iraupena.** 75 minutu.
- **Pilotakadak.** 691.
- **Bengoetxearen tantoak.** 13.
- **Bengoetxearen huts egiteak.** 4.

tsu joan zeneko tartea eta, bestetik, Aimar Olaizolaren tartea.

Hasieran, pilotariek ez zuten gehiegi arriskatu nahi, eta tentuz ibili ziren. Lehen tantoei erreparatuz, bazirudien partida bera atzelarien artean erabakiko zutela; Bengoetxearen bikoteak, Belokik, ondo ekin zion partidari pilotak ongi mugituz, baina baita Mendizabalek ere.

Hala, lehen zati honetan tanto luzeak izan ziren, eta Beloki ongi defenditu zen. Oinatz Bengoetxeak hiru tanto jarraian lortu zituen eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten (12-11). Ondorengo tantoetan ere aurretik jarraitu zuten eta 15-11ra ere heldu ziren. Una honetan, apustuak ere Leitzakoaren eta bere bikotearen alde jarri

ziren, abantaila txikia izan bazen ere.

Mendizabali min egin nahi zioten, eta hein batean lortu zuten, une batez Añorgakoa nekatu ere nekatu zelako. Orduntxe azaldu zen Aimar Olaizola eta partidari buelta ematea lortu zuen. Indarra erakutsi eta 0-7ko partziala lortu zuen goizuetarrak.

Leitzarrak finaletik kanpo

Bengoetxearen porrot honek finaletik kanpo utzi du eta Abel Barriola ere kanpoan geratu zen aurreko fasean. Biek ere kantxatik kanpo ikusi beharko dute finala. Banakakoa izan da euren hurrengo hitzordua.

Finala martxoaren 29an, igandearekin izanen dela jakinarazi dute dagoeneko. Aurrez aurre bi

Binakako Txapelketaren finala martxoaren 29an izango da Donostiako Atano pilotalekuan

bikote indartsu izango dira: Olaizola II-Mendizabal II eta Martinez Irujo-Fernando Goñi. Finala Donostiako Atano pilotalekuan izanen da.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta errepikatzen dituzten autobusak
Ereño eta Irujo-Goñiaren autobusak
Ereño eta Irujo-Goñiaren autobusak
Ereño eta Irujo-Goñiaren autobusak
Mendizabal kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA
Pasaia 10013/10014 / 10015/10016/10017/10018

Txolarre Irratikoak gustura, herri kirol jaialdia «borobila» izan delako

Asteasu » Pilotalekua bete egin zen eta 11 urteko Magunazelaiak erraz altxatu zuen 106 kiloko harria.

ERREDAKZIOA

Kabitik Plazara egitasmoaren baitan, Txolarre Irratiak herri kirolen jaialdia antolatu zuen herenegun Asteasun, bertako Udalaren babesarekin. Oso gustura agertu dira eskualdeko irratik euskalduneko kideak, «jaialdi borobil bat ikusteko moduan» izan baitziren herriko frontoia bete zutenak. 300 lagun inguru elkartu ziren jaialdia ikustera. «Herri kirolen katea ez dela eten frogatu da Asteasun», azaldu dute irratitik. «Kirolarietara eta hurbildu den jendetzari begiratu besterik ez dago».

Etorkizunean zeresan handia eman dezakeen harri-jasotzaile batek hartu zuen parte jaialdian: Urdax Magunazelaiak. Egia esan, dagoeneko harridura sortzen du 11 urteko kirolariak. Igandean 106 kiloko harria jaso zuen gaztetxo bizkaitarrak. Bederatzi segundo besterik ez zituen behar izan harria leporatzeko eta lehenengo saiakeran lortu zuen gainera. Era honetan, Magunazelaiak Aimar Irigoienen marka hautsi du. Errezildarrak 100 kiloko harria jaso zuen bizkaitararen adin berarekin. Magunazelaiak jaialdia itxi zuen harri borobilarekin erakustaldia eginez.

Enbor handiarekin aurka

Jaialdiaren beste saioa aizkorarekin izan zuen zerikusia. Hiru metro bueltan zituen enbortzarra zutika ebaki zuten Joxe Mendizabal eta Anjel Arrospide aizkolari beterranoek. Txandaka jardun ziren lanean eta 19 minutu eta segundo bat behar izan zituzten enborra ebakitzeko. Ikusleek apustu egiteko aukera izan zuten saio horretan. Enborra ebakitzeko behar izan zuten denborara gehien hurbildu zenak bi lagunentzako afaria irabazi zuen Asteasuko Sarasola Sagardotegiak eskainita.



Aizkolari beterranoak gogoz aritu ziren hiru metroko enborra mozten. TXOLARRE IRRATIA



Lasto jaurtiketa izan zen ikusi ahal izan zen jokoetako bat. TXOLARRE IRRATIA

» HURRENGO EKITALDIAK

- **Apirilak 4, larunbata.** Bertso afaria, 21:00etan, Tolosako lurre elkartean, Jexux Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariekin.
- **Apirilak 25, larunbata.** Kantu bazkaria Berastegiko Urepel elkartean, 14:00etan. Herriko abeslariak ariko dira.
- **Maiatzak 9, larunbata.** Kantu afaria, Ibarren, 21:00etan. Herriko abeslariak ariko dira. Ibarako Garagardo Azokaren baitan izango da ekitaldia.

Hirugarren saioa Iparraldeko jokoan inguruan izan zen. *Tubi* eta Lapazaran anaiek erakustaldi bikaina egin zuten. Lasto altxatzen jardun ziren lehenik, ingudean gero eta lasto jaurtiketan azkenik. Jendeak erruz gozatu zuen joko hauek ikusten, inguru hauetan ez baitira ohikoak horrelakoak.

Bertso bazkaria

Alegian egindako bertso bazkaria izan da Txolarre Irratiak antolatu duen beste ekitaldia pasatu berri den asteburuan. Gustura daude ere ekitaldia nola joan zen ikusita. «Jende dezente joan zen», azaldu dute irratitik, «eta bertsolariek oso saio ona eman zuten». Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze izan ziren kantatzen aritu zirenak.

Aurrera begira, *Kabitik Plazara* egitasmoan beste hiru ekitaldi antolatu dituzte Txolarretik: bertso afaria Tolosan, kantu bazkaria Berastegin eta kantu afaria Ibarren. Orain arte egin diren beste hiru ekitaldien inguruan balantze «oso ona» egin dute. «Egitasmoaren helburua irratia presentzia plaza izatea zen eta jendearen erantzuna ona izan da».

Laburrak

Osoko bilkura egingo dute bihar udaletxean, 14:30ean

ANOETA » Udal Plenoaren ohiko bilkura egingo dute bihar, 14:30ean, udaletxean. Gai bakarra jorratuko dute bilkuran, Anoetako auditorioaren inguruan: erabilera anitzetako kultur ekipamendua eraikitzeko obra kontratuaren lizitazioa bertan behera uztea eta administrazio xedapenean plegu berria onartzea.

Lopetegiren omenaldia galarazi du Ertzaintzak

TOLOSA » Igandean tolosar talde batek orain 21 urte hildako Mikel Lopetegi euskal presoaren omeneko ekitaldia antolatu zuen Urkizun, baina Triangulon mendira joateko bilduta zeudela Ertzaintza gerturatu eta ekitaldia debekatu zegoela esan zieten. Jende multzo batek, hala ere, Urkizuko bidea hartu eta bertan omenaldia egiteko erabakia hartu zuen, baina Ertzaintzak galarazi egin zieten, berri ere. Honen ondorioz Lopetegitaren baserri batean egin behar izan zuten omenaldia.

Batzordeen bilerak izango dira gaur 21:00etan

AMEZKETA » Gaur asteartea 21:00etatik aurrera Kultura, Gizarte Ongizate eta Ingurumen Batzordeen bilera izango da Amezketako udaletxeko pleno aretoan. Bertan, Udako lokalak eskaera, erretiratuen ibilaldiak, musika eki-poaren eskaera, Aralar parkeko bi-deak eta meatzetako proiektua izango dituzte hizpide.

Hurrengo hiruhilekoan ere cycling eta yoga ikastaroak

ANOETA » Abraham Olano kiroldegian hurrengo hiruhilekoan izango diren ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute. Cycling eta yogo ikastaroetarako kiroldegian bertan edo 943 65 13 33 telefonora deituta egin daiteke. Ikastaroak apirilaren hasi eta ekaina bukaeran amaituko dira. Bi jardueretan talde zein ordutegi ezberdinak daude eta gehiago jarri nahi dituzte.

Denbora Bankuari buruzko bilera hilaren 23an

ALKIZA » Denbora Bankuaren inguruko bilera egingo dute hilaren 23an, astelehena, Alkizako Kultur Etxean, 17:00etan. *Hartu denbora behar duzunean eta eman denbora ahal duzunean* da egitasmo horren leloa. Hau da, diruan oinarritu behar diren lanordua aintzat hartzen duen zerbitzuen trukatzeko sistema da. Bakoitzaren astia modu berdinean trukatzeko prest dauden pertsona helduentzat pentsatuta dago. Interesatuta dagoenak eta egin horretan ezin duenak joan Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera dei dezake, 943 69 39 60 telefono zenbakira.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Laskoraintzat izan da derbia

Areto-futbola » «Partida polita» izan zen ikusgai Astigarrako Udal Kiroledegian; 5-10ko emaitzarekin amaitu zen.

ERREDAKZIOA

Pozik egoteko arrazoiak dituzte Laskorain areto-futboleko taldeek, izan ere, garaipenarekin bueltatu zien etxera, pasa den larunbatean Astigarrako Udal Kiroledegian Gipuzsala-Nogales taldearen aurka jokatuak partidak (5-10).

Giro paregabea izan zen zalegoen artean eta norgehiagokak ez zion harmailtan bildu zirenei hutsik egin, markagailuak erakusten zuen gol zaparrada galanta izan zelarik aipaturikoaren frogarik argiena. Izan ere, eta jakina den bezala

Azken partida Nazional B mailako liderra merezimendu osoz gainditu ondoren, zaila eta aldi berean erakargarria zen Laskorain taldeak aurrean zuen partida. Taldeko arduradunek azaldu bezala, parez pare, «harrobia eta eguneroko lanaren eredu» izan zuten, Gipuzsalaren eskutik.

Derbi berezia zen Alonso entrenatzailearen mutientzat, izan ere, «sobera jakina da horrelakoetan 3 puntuetaz gain zerbait gehiago ere badagoela jokoan».

Lehen zatian, 0-5

Konzentrazioz beterik kantzaxartu ziren horitxoak; horrek lagundu egin zuen markagailuan alde ateratzen eta lehen zati «biribil batek» 0-5 aurreratu zituen. Murgi, Saldias eta Telletxea (3) jokalaririk izan ziren ordurarteko golegileak. Baina, «defentsa sendo eta eraso adimentsu batek maldan behera ipini zuen eronka».

Bigarren erdiari ere hasiera ona eman zioten eta lehen minutuetan

Gipuzsala-Nogales 5

Laskorain 10

■ **Laskorain.** Endika, Telleria, Murgi, Telletxea, Lander, Barriola, Saldias, Amatriain, Joniko, Ekhi, Gil eta Domentxe.

Laskorainen golak

■ Murgi, Saldias eta Telletxea (5), Gil, eta Ekhi (2).

Telletxeak 0-6koa igo zuen markagailura; etxekoek atezain jokalaria ateratzeko erabakia hartu zuten, baina ikastolakoek puntuak ondo lotu eta 5-10-eko emaitza zabalarekin amaieratu zuten norgehiagoka.

Tolosarren gainontzeko golak, Telletxea, Gil, eta Ekhi (2) eskutik heldu ziren. Ekhi, partida bikaina egitea lortu zuen eta pozik zegoen partidaren amaieran. Telletxearen aipamena ez dute alde batera utzi nahi izan taldekideek, bost gol lortu baitzuten jokalariek eta, noski, «hori ez da eguneroko egiten».

Taldek Inñaki Egizabal bere idazkari teknikoari eskaini nahi izan zion garaipena.

Filialek ere irabazi dute asteburuan

Larunbatean Astigarragan, Alonso entrenatzailea, Endika, Telleria, Murgi, Telletxea, Lander, Barriola, Saldias, Amatriain, Joniko, Ekhi, Gil eta Domentxe izan ziren neurketa bikain honen protagonistak.

Filialari dagonionez 2-8 irabazi zuten Legorretako Bilkoinen aurka goera fasean sartzeko borrokan aurrerapauso garrantzitsu bat emanez. Pradosen neskek ere beste horrenbeste egin eta 12-0 gainditu zuten Eskolapioen taldea, ikastolarentzat areto futbol arloan astebukaera fina borobil duaz.

Hondarribian irabazita Hirugarren da Tolosa CF

Futbola » Etxetik kanpo jokatuak partidan 0-3 gailendu ziren urdinak; datorren partida Aurreran aurka izango dute.

ERREDAKZIOA

Etxetik kanpo lortu zituen pasa den asteburuan 3 puntuak Tolosa CFk, Hondarribiaren aurkako partidari (0-3).

Aurkariak lehen zati ona burutu zuten, baina atsedendaldirako aurretik zen markagailuan Tolosa CF, 0-1ekoarekin. Bigarren zatian, berriz, urdinek oso ondo jokatu zuten eta beste bi golak sartu zituzten. Taldeko golegileak Telleria (2) eta Ilunbe izan ziren.

Honenbestez, hirugarren postuan dago Tolosa, lehen postutik -Aretxabaleta- bi puntura. Datorren partida etxean izango da Aurreran aurka.

Bidebidek garaipen garrantzitsua lortu du Mikeldiren aurkakoan

Saskibaloia » Tolosako taldeak mailari eusteko aurrerapauso eman zuen larunbatean Usabalen; etzi, Zallan jokatu du.

ERREDAKZIOA

Bigarren faseari garaipenarekin ekitea ezinbestekoa zen Bidebide taldearentzat, are gehiago azken jardunaldiaren porrotaren ostean. Eta oraingoan ez zuten hutsik egin. Aurrez aurre Mikeldi talde bizkaitarra izan zuten Usabalgo kantzaxan. Azken markagailua 69-57 geratu zen.

Hala, beste urtebete Lehen Mailari eusteko helburua bidean pauso garrantzitsua eman zuten Jimmyren mutilek. Partidak zuen garrantziaz jabetu ziren Tolosako jarraitzaileak eta Usabalgo harmailtan jende ugari bildu zen. Azpimarratzekoa izan zen, halaber, kanpotarrek izandako jarraipena bere taldea animatzeko asmoz.

Hasiera txarra etxekoentzat

Bidebidek, beraien lesiotatik errekuperatzeko gutxi falta zaien Joseba, Martia eta Unaien bajak izan

zituena. Beraien ordez gero eta ardua handiagoak hartzen ari diren hiru juniorrak aritu ziren.

Partida gaizki hasi zen etxekoentzat. Kanpotarrek barneko jokoa baliatuz lehen aldeak lortu zituzten markagailuan. Etxekoek ez zuten amore eman eta kanpoko jaurtiketetan oinarrituz markagailuari buelta eman zioten lehen laurdenea sei puntuko aldeaz (17-11) bukatzeko.

Bigarren laurdenean ere lehen laurdeneko partziala errepikatu zen, egoeraberdin jarraitzen zegoela erakutsiz. Laurden honetan epaileek teknika bana adierazi zituzten talde bakoitzari, kantzaxan egon zen tentsioa ere argi erakutsiz.

Azken laurdenera arte, tentsio handia

Atsedendaldiraren ondoren kanpotarrek markagailuari buelta eman nahi izan zioten, 3-2ko zonakako defentsan oinarrituz. Pixkanaka-pixkanaka aldeak murriztuz joan ziren, partidari berriro ere sartu arte. Azken laurdenera 45-41 sartu ziren. Tentsioz beteriko hamar minutu gelditzen ziren emaitza erabakitzeko. Azken laurdenean

hasieran gauzak gaizki joan ziren etxekoentzat, kanpotarrek aurretik jarri ziren 0-8ko partzial batekin baina harmailtako laguntzarekin tolosarrek berriro ere buelta eman zioten markagailuari 15-0ko partzialarekin. Bizkaitarrek aldeak murrizten saiatu ziren arren berandu zen aurretik jarri ahal izateko eta garaipena etxean gelditu zen 69-57.

Datorren ostegunean, kanpoan

Hurrengo astean, San Joseren zutia dela-eta ostegunean jokatu du Bidebide taldeak, Zallan (Bizkaia). Entrenatzaileak eta jokalariek argi dute beste garaipen bat ezinbestekoa izango del maila mantentzeko helburuan.

Taldetik jakinarazi dutene, partidaren atsedendaldira zozketaren emaitzaren zenbaki sariduna 544 izan zen.

Bidebide 69

Mikeldi 57

■ **Bidebide.** Kike (10), Goar (19), Mikel Txiki (6), Ion (6) eta Julen (0) -hasierako bostekoa-. Harritz (7), Fernan (9), Lakun (2), Kaiet (8), Aza (2), Iñigo (0) eta Mendiluri (0)

■ **Mikeldi.** Tomas (2), Sesma (12), Muñoz (0), Martín (13) eta Acilona (0) -hasierako bostekoa-. Martín (4), Mercado (11), Ortega (10), San Vicente (5), Meto, Muñoz eta Marato.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO HASTAPEN IKASTAROA

EKIN
ADMINISTRAZIOAR **EKIN**

Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin, Udalekin eta Administrazio zerbituekin elkarlanean itelako KZgunea Sarean ikastaroa

KZgunea	Helbidea	Telefonoa
Beasain	Oriako pasealekua, 12	943 160 147
Lazkao	Elosegi, 34	943 881 963
Legazpi	Latzategi plaza, 3	943 737 031
Ordizia	Domingo Unanue plaza, 8	943 884 378
Tolosa	Pablo Gorosabel, 34	943 653 720
Urretxu	Barrenkale, z/g.	943 527 359
Villabona	Larrea, 8 R	943 693 102
Zumarraga	Legazpi, 7 (Zelai Ritzti Kultur Etxeal)	943 720 728

Eskuz ezazu informazio zure KZgunean, Udalekian edo Interneten:
www.kzgunea.net





Kontzertuak, kirola eta erakustaldi ugari, Gazte Festen barruan

Berastegi » Etzi hasiko dira festak eta larunbatera arte iraungo dute; urteroko herri-afaria ostiralean izango da.

ERREDAKZIOA

Iritsi dira aurten ere Berastegiko Gazte Festak. Urepele Elkarteak antolatu ohi ditu eta herrikoak eta herrikoak ez diren gazteak erakaritzeko egitaraua osatzen saiatu dira. Urteroko Mus Txapelketaren finalarekin eta herri-afariarekin batera, aurtengoan Hesian Sakanako talde ezaguna gonbidatu dute herrira eta capoeira brasildararen erakustaldia ere izango da larunbatean.



Sakanako Hesian taldea Berastegin izango da larunbat honetan Urepele Elkarteak antolatutako Gazte Festetan. HITZA

» EGITARAUA

Martxoak 19, etzi

- **18:00.** Palako finalak.
- **22:30.** Kontzertuak Gaztetxean: Mendeku itsua eta Gaueko Itzalak.

Martxoak 20, ostirala

- **17:30.** Futbol partidak: nesken norgehiagoka eta mutilen arteko desafioa.
- **21:00.** Herri afaria izango da Kakonen.
- **00:30.** Trikizio musika taldearekin dantzaldia.

Martxoak 21, larunbata

- **15:30.** Mus Txapelketako finala biltokian.
- **18:00.** Kapoeira dantza emanaldia.
- **Ondoren.** Ardo eta sagardo dastaketa pintxoiez lagunduta.
- **23:15.** Hesian taldea. Ondoren, Tximeletarekin dantzaldia.
- **Oharra.** Gauean zehar autobus zerbitzua egongo da.

Gizonezko bat hil da auto istripuan Olarrain auzoan eta Lizartzan hiru zauritu izan dira

ERREDAKZIOA

Atzo 16:45a aldera 72 urteko gizonezko batek istripua izan zuen Olarrain auzoan, Oria ibaiaren zubi gainean. Donostiako auto gidaria bertan hil zen. Kamioi baten kontra jo zuen.

Kamioi gidariak azalduta, auto gidaria Alegia aldera zihohan eta bat-batean gainera etorri zitzaion autoa; gutxinaka norabidea galitzen joan zen, bere ezkerreko ibilbidea hartuz. «Ez zihohan abiadura handian», kamioilari tolosarrak azaldu bezala. Ez dirudi istripuaren kolpearen ondorioz hil zenik, aurretik gertatu zaion zerbaitegatik baizik. Halere, heriotza zergatik gertatu den gaur egingo dioten autopsiak argituko du.

Anbulantzia (112) une horretan pasatu zen eta segituangizonezkoari laguntzen saiatu ziren, baina berandu zen. Donostiara eraman zuten gero.



Alegiarako norabidean, Olarraingo zubian zendu zen 72 urteko gizona. I. GARCIA

Hiru zauritu Lizartzan

Beste istripu batean furgoneta bateko gidaria atxilotu zuen atzo Ertzaintzak Lizartzan. Barne sailak esandakoaren arabera, istripu bat izan zen goizean aipatu herrian, non furgoneta batek eta auto batek elkar jo zuten. Furgonetaren gida-

riak legeak zehazten duen alkoholdasa ia bost aldiz gainditu zuen.

Istripuaren ondorioz, autoan zihozten hiru pertsona larri zauritu ziren eta horietako bi Tolosako Asuncion ospitalera eraman zituzten eta Donostia Ospitalera bestea.

Desagertutako marinelaren bila ari dira

ERREDAKZIOA

Frantziako erreskate zerbitzuek atzo utzi zuten Tolosan bizi den marinel mutrikuarraren bilaketa. Orain, hortaz, Espainiak hartuko du ardura. Manuel Goenaga 56 urtetako arrantzalea igande goizean desagertu zen Bizkaiko Golkoan. Lasti ontzian zihola. Makinista ziharduen, urritik eta aurretik,

beste hainbat itsasontzitan lan egindakoa ere bada. Gironda (Frantzia) aldean zihozten orduan, eta igande goizetik Frantziako itsas armada ibili zen bilatzeko lanetan. Oraindik ere inork ez daki zehatz zein ordutan eta zein lekutan galdu zen Goenaga, baina goizeko seietan eman zuten desagertuaren berri itsasontziko kideek.

Maddi Amiano judoko Euskadiko txapelduna

ERREDAKZIOA

Maddi Amiano altzotarra 44 kilo azpiko kadete mailako Euskadiko txapeldun berria da judoan. Asteburuan jokatu zen txapelketa Gasteizen; «eraz» irabazi zuen, «gustura» arituz.

Hau lortuta, Alacantera (He-

rrialde Katalanak) joango da maiatzaren 23an, Espainiako Txapelketa jokatzeko. Bigarren urtez joango da bertara: Espainiakoa irabaziko gero, Europako Txapelketa saikatuko litzateke. Dena dela Espainakora iristearrekin «gustura» dago.

Hilberria

MARI ANGELES IRURE

'Nataxta'



Behin ezagutuz gero sekula ahaztu ez

Eider, Iñaki, Garbiñe eta Kiribil-eko lagun guztiak

ZARAUTZ
2009ko
martxoaren 17a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Laburrak

2-leko garaipena Intxurrekoen alde

ALEGIA ● Alegiako Intxurre futbol taldea azkenaldian garaipenak ari da lortzen, azken asteburu honetan bezala. Izan ere, Ordiziaren kontra 2-1ekoa lortu du Intxurrek. Etxean jokatu zuten eta laugarren postuan dagoen taldea garaitu zuen larunbatean. Orain 15 puntu dituzte alegiarrek eta 5. postuan dira, Kostkasengandik puntu batera. Datorren jardunaldian Irungoen kontra aritu beharko dira, Irunen kasu honetan. Irungo futbola-riak 7. postuan daude, Intxurrekoengandik puntu bakarrera.

Sagardotegira joateko izena emateko epea

ALBIZTUR ● Hilaren 28rako sagardotegira irteera antolatu du Albizturko Udalak. Afaria Aburuza sagardotegian izango da. 20:00etan plazatik abiatuko dira autobusez. Afalostean berriro autobusa joango da bila sagardotegira. Lehenik Hernanira joango da, nahi duena han uzteko, eta ondoren Albizturrrera itzuliko da. 04:30ean berriz autobusa irteera da Hernanitik, han geratu direnak herrira hurbiltzeko. Prezioa 33 eurokoa da, afaria eta autobusa barne. Izen-ematea udaletxean egin daiteke, hilaren 25era arte. Izena emateko garaian etxera zein orduan itzuli nahi den zehaztea eskatu du Udalak.

Gaur Iñaki Antiguedaden eskutik, uren kudeaketaz

AMEZKETA ● Gaur 19:30ean Amezketa balioantzeko gelan Iñaki Antiguedad geologoak bideratutako hitzaldia izango da. Kasu honetan uraren inguruan ariko da hitz egiten, zehazki haren kudeaketaz. Amezketa ez dira adostasunerari iristen ohiko bilkuretan, bazu Ur Kontorsioan sartu nahi dutelako eta beste batzuk, berriz, Kontorsiotik guztiz atera. *Harnaika argibide uraren inguruan* deitu diote ezker abertzaleak antolatutako hitzaldiari, eta herritarrek bertara joatea eskatu dute, informazio ahalik eta osatuena izateko.

Etzi Altuna II.ak hirukotea osatuz jokatu du

ERREMONTEA ● Etzi, erremonteko honako lau partidak jokatu dituzte Hernaniko Galarretan 16:00etan hasita: 35era Matxin IV-Baleztena eta Etxabe II-Zubizarri ariko dira lehenik. Bigarren partida 40era izango da eta Ezkurra-Urrutia bikotea Uterga-Altuna II-Iriarte hirukotearen kontra ariko dira. Hirugarrenean Juaristi-Agirezabalaren eta Iñigolonen txanda izango da. Azkenik, 30era partida Ibarzabal-Olazarrek eta Zulaika-Urkok jokatu du.



Sei gereziondo berri frontoiko atzealdean

ALTZO ● Joan den astean, Altzoko Imaz ikastetxeko ikasle guztiek Zuhaitz Eguna izan zuten. Kasu hartan, sei gereziondo landatu zituzten joan den urteko leku berean. Izan ere, bertan jarritako zuhaitz batzuk ihartu egin ziren, lehortu. Beraz, berriz berriak landatzea erabaki zuten, frontoia atzealdean, hain zuzen ere. Adin guztietakoak, guztira 50 bat lagun bildu ziren, ikasleez gain, guraso eta irakasleek ere parte hartu nahi izan zuten zuhaitzak landatzeko orduan. Bukatzeko, Altzoko Udalak merienda prestatu zuen parte hartu zutenentzat, eguraldi bikaina ere aprobetxatuz. HITZA

Zazpi-Itturri pilota eskola ere VI. Berriako finalerdian ariko da

Pilota » Irurtzunen aurka jokatu beharko du; Rurrera-Saiazek etzi Beotibarren jokatuko du finalerdia, Zugarralderekin.

NEREA URBIZU

Amezketako Zazpi-Itturri pilota eskolak VI. Berria Pilota Txapelketako finalerdietarako txartela eskuratu du asteburuan. Zazpi-Itturriko pilotariak 3. kanporaketan aritu ziren Galdakaoren aurka eta gailendu ziren, kadeteen eta gazteen mailan irabazi ondoren. 22-12 eta 22-16 izan ziren emaitzak, hurrenez hurren. Nagusien mailan, aldiz, 22-10 galdu zuten, baina ez zuten garaipenaren beharrik izan, nahikoa baitzuten 6 tanto egitearekin.

Beraz, Zazpi-Itturriko delegatuak egingo dute aurreikuspenak bete egin dira, hau da, lehenengo biak irabazi eta «hirugarrena zurrerrik galdu» egin dituzte. Izan ere, Galdakaok nagusien mailan «oso pilotari onak zituzten».

Kadeteen mailan Gallurraldek eta Jakak osatu zuten bikotea eta «oso partida ona jokatu zuten. Gainera Jakaren urtebetetzea zen eta omenaldi polita izan zen. Bikotea gehiago izan zen». Jubenilena Olaetxeak eta Arzelusek jokatu zuten eta «hobe egin bazezaketen ere, azkenean irabazi zuten 15-16 galtzen joanda. Baina gure egitekoa lehenengo bi partidak irabaztea zen, eta lortu genuen».

Irurtzun, finalerdiko aurkaria Seniorrena Elurbe-Leundak jokatu zuten. 13-5 galtzen egin ziren, baina 5 tanto gehiago egitea lortu zuten amezketarekin.

Datorren asteburuan, zehazteke dagoen ordu eta egunean Irurtzunen kontra jokatu beharko dute finalerdia. «Aurkari gogorra izango da, pilotari asko dauzkate, aldaketak egiteko aukerak eta pilota eskola ona da». Zazpi-Itturrik, bere aldetik, aldaketa batzuk egin beharko ditu, esaterako, Elurbe nagusia ez baita egongo.

Zazpi-Itturriko pilota eskolakoko «oso pozik» daude lortutako emaitzarekin. Hernaniko finalerdian irabaztera aterako dira ere.

Etzi, Aurrera-Saiazen finalerdia Beotibarren

Aurrera-Saiazek Berria Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu eta irabazi zuten eta ondorioz finalerdietan da ere: aurkaria Zugarralde da. Beraz, aurkezitako eskualdeko bi pilota eskoletatik biak dira finalerdietan. Aurrera-Saiazek etzi jokatu du partidak, Tolosako Beotibarren 10:30ean hasita.

Pilotari hauek ariko dira lehen bertan: kadeteen mailan, Labaka-Arratibel eta Iribarren Mayans; jubenilen mailan Apezetxea-Zinku-

negi eta Jaunarena-Tainta; nagusien mailan Renobales-E. Galarra eta Santesteban-Azanza ariko dira.

Udaberri Txapelketan irabazi

Udaberri Txapelketako bi norgehiagoka jokatu zituen Aurrera-Saiazek Ibarren eta bietatik biak irabazi zituen, kadeteen mailan binaka: Zelaia-Elustondo eta Azkoitiko aritu ziren lehenik eta 22-13 irabazi zuten. Bigarren partidatan Labaka-Barandiaranek 22-8 irabazi zuten Bergararen kontra. Eskoriatzan jubenilena jokatu zuten baina 22-13 galdu egin zuten.

Leitzako pilotako emaitzak

Emakumea Pilotarin ari dira Leitzako Aurrera pilota eskolakook eta finalaurrekoa Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak ezin izan zuten irabazi Diaz-Okarizen aurrean; 24 tanto egin zituzten leitzarrek.

Nafar Jokoei dagokienez, benjaminak aritu ziren Leitzan eta Sukuntza-Billabonak Beti Onaken kontra 18-14 irabazi zuten. Alduntzin-Eskudero bikotea Leitzako beste bikote baten aurka aritu zen,

Altzelai-Illarregiren aurka, hain zuzen. 18-7 bukatu zen partida. Burlatan Olano-Barberenen galdu zuten Zugarralderean aurka, 18-16. Eraso-Onsalok, berriz, 17-22 irabazi zuten Lizarran.

GRAVN Txapelketan ere murgilduta daude leitzarrek, Nafarroa

Leitzakoek Nafarroa ordezkatu dute GRAVN Txapelketan eta aise irabazi diote Errioxari

ordezkatzan eta hasiera bikaina izan dute, Errioxaren kontra 22-9 irabazi ondoren. Jubenilen mailan Jaunarena aritu zen, Iturriagaren aurka.

Teledonostin ere ari dira eta kadeteen mailan Ariztimuñok Arozenari 22-16 irabazi zion. Jaunarenak 22 urte azpikoetan 22-14. Beraz, bi garaipen Teledonosti torneon.

Zizurren hiru partida jokatu dituzte asteburuan zehar eta hirurak irabazi dituzte Aurrerakoek. Olan infantilak 16-7; Jaunarena kadeteak 18-4; Lezea alebinak 16-6.

@ Elkarrizketa digitalak. Atzo

Kike Amonarrirek irakurleek egingo dute erantzunak eman zuten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO erredakzioan. Webgunean irakurtzeko aukera izango duzu gaur ere, eta Amonarriren elkarrizketaz gain, hortxe izango dituzu Garbiñe Biurrunena, Edurne Pababanen eta Asier Izagirrerena, Gari Uranga, Jokin Bildarratz, Inaxio Perurena eta Hektor Espin eta Antton Izagirrerena. Aldiro elkarrizketa berriak egingo ditugu, zuek egingadako galderei esker.

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



17°
8°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 18°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Mikel! Aupa osaba! Salako intxaurrek biitzeko daude!



Urte askoan!

Mikel. Auñamendiko puntan ospatuko dugu askatasuna! Besarkada erraldoi bat. Manex.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Urte askoan!

Mikel. Besarkada handi bat zure lagunengatik!



Zorionak mantalax!

Maite zaitugu Villabonatik! Garaipena geurea da!

A Agenda

Deialdiak

- **Albiztur.** Hilaren 28an, larunbatarekin, Adunako Aburuza sagardotegira irteera antolatuta dute autobusaz, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udaletxean.
- **Alkiza.** Gizezkoentzako afaria Sarasola Sagardotegian 18an, Aitaren Eguna dela eta. Izen-ematea Elizegi tabernan. Afalostean mus txapelketa antolatuta da Elizegi tabernan afarira joan direnen artean.
- **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiara antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian.
- **Ibarra.** Rosario Beribenek Caritasek etxerik gabeko pertsonentzat duen proiektu berria aurkeztuko du parrokiako lokaletan 20:00etan, Misiolari Astearen baitan.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartean

ak Tenerife hegoaldera apirilaren 17tik 26ra irteera antolatuta du 670 eurotan (ez bazkideek 676 euro). Izen-ematea, elkartean.

Kirolak

- **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberrira (Aran bailara, Pirinioak) irteera antolatuta du Oargi mendi elkarrekin. Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke.

Erakusketak

- **Tolosa.** Sida/Ihesa 8 artista 8 hausnarketa' erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Betelu.** Carrillo, a. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.